

AIZUE!

Xabier Alday Amiano¹

Ama eta biok zamatuta herria genuen gurdia-
ren ondoan gerta ginen, aitzak leihok iltzatu eta ateko sarrailan giltzak bira
zitezzen listua botatzen zuen bitartean. Gurdiko behor apai-
latuaren antzera, urduri itxaroten genuen, begira genituen
hainbat begietatik ahal bezain urrutien alde egiteko gera-
tzen zitzaizkigun segunduak zenbatzen. Olgaitzeko meha-
tzea betirako itxia zen egun batzu lehenago eta orain beste
zereginik ez zeukaten herriko
ia gizon guztiek, apezta eta
bizargina salbu, gure joatea
ikusteko batzartuak ziren etxo-
la aurrean bertan. Oholesia-
ren luzera guztia hartuta zeukaten,
ihazko landareek ostu iluneko
euren eskuak ukabilen gisa
ixten zituzten soroan bilduta.

Nire adineko mutil kozkorrek
gure etxeko leihok patrikak
harriz beteta beha zituztela
konturatu nintzen. Bisaiak
aztertu nizekien eta nire barnean
laister hustuta eta inoren esku-
tan geldituko zen etxola hareki-
ko mineria hazten sentitu nuen.
Niri zuzendutako despedida
hitz bat entzun gura nuen guti-
ziatsuki, agur keinu bat antze-
man han edo hemen. Baina
herriko gizajoak izan zuen soi-
lik banihoala ikustean atsekabea sentitzeko zolitasuna, taba-
ko etiketen eta kordel zaharren balioa ederresten zituen
gizon baten semeak soilik, betiereko haur bat, bere egunen
amaiera arte ume gisa bizitzera kondenatuta. Juan Bautista
zegoen han aurrean, begiak tirria eta kuriositatez heterik, eta
inguruko guztiek noski, adarra jo eta iseka egiten zioten.
Garagarzatarren gazteena bere atzetik belaukatu eta zapa-
tatarren aingiren tankerako lokarriak askatu zizkion.

Etxeko atarrietatik mugitu ere egin gabe emakume mordo
bat ere begira genituen arren, alargun bat bakarrik hurbildu
zitzaion nire amari zorte ona oparitzera. Asun Garmendia
urrats handiak emanez hurbildu zen, ohi zuen bezala,
garai eta gotor, lepotik, ibiltzerakoan pendulu baten
moduan zabunkatzen zitzaion medailoi hori bat zintzilik
zeramala. Ikusi zuenean, Martin Txiki, kantinako jabea,
ahoa zabal-zabalik bota zuen:

Hori bezain emakume altua balitz nire emaztea, kukumak
eskegi lepotik eta txorimalo gisa erabiliko nuke. Benetan.

Inguruan zituen guztiek barre egin zuten hortz artean.
Martin Txikik atzera egin zituen urrats batzuk, Asun
Garmendia-
ren besoetako giharreak edozein gizonenak
bezain indartsuak zirela jakitun.

Asun nire ama baino askosaz altuagoa zen. Medailoia
berunezko lapitza bailitza erortzen zitzaion lepoan behe-



ra. Amak ozta-ozta neurtzen zuen metro t'erdi eta beha-
rrezkoa zuen burua atzeraka tolestea zerura behatuko balu
bezala Asunekin hitz egiterakoan; begiak medailoian
zorrotzki pausatuta zituen, bizian behin ere ez baitzen
izan urte piporta baten jabe ere, are gutxiago medailoi bat,
edo eraztun bat, edo buru handiko iskilinba batena.
Asunek ozaro mintzatu zitzaion amari, gizona destainuz
begira.

Harro behar zenuke zure gizona Olgaitzen bizirik usteldu
nahi ez duelako, ezer egin gabe erreka ondoan etzanda.
Laister denek joan beharko dute hemendik, mudatu edo
gosez hil beharko dute hemen. Mehatz hau ez da gehiago
behin ere zabalduko. Guztiz agortuta dago. -Asun, nekerik

¹ Ereintza Elkartek antolatutako "Errenteriako Hiria
1998eko XVIII. Ipuin Lehiaketaren" Euskarazko 1. Saria.

gabe harriak bakarrik ugaltzen ziren lur batzuren jabe zen. Handik ateratzen zuen bizitzeko adina.

Gizon erreusen nahaspila bat egon zen orduan. Herriko apezta agertu zen, besoekin errotak trazatuz airean, laino beltzak eta tximista beldurgarriak iragartzen zituen sermoiari ekitera bailihoan.

— Burugabe horiek ez dute nora joanik —mintzo zitzaion gizon aldrari eta erakuslearekin gu seinalatzen gintuen—; bailara honetan, ibaiaren ibilbide guztian ez dago lan-eskurik behar duen mehategi edo burdinolarik, ez dago lanik inon. Pekatu mortala da kristau familia bat ijitoen gisa batetik bestera noraezean ibiltzera behartzea.

Nik diodana zera da: estalpe baten jabe zareten bitartean, gorde ezazue eta zaudete bertan. Jainkoak estutu egiten du, baina ito gabe.

Marmarka eraso zioten gizonek, burua kordoka astinduz, eta mutikoak eskuak harriz zamatutako patrika pisutsuetan bermatu eta gurdirantz hurbiltzen hasi ziren. Eskolan gainontzeko guztiok erabat beldurtuta gintuen Garagarzatarren gazteenak, gure artean mutikorik handi eta ausartenak, Juan Bautistaren albotik igaitzerakoan kapela kendu eta bere buruan jantzi zuen. Belarrietaraino artekatu zitzaion egia esan. Mutikoek gurdia gurpiletan ipini zituzten hatzamarra, behorren arrioak ukitu eta erre-minta kutxaren tapakia ireki zuten barruan zer zegoen ikusteko. Beraien artean buru egiten zuenak lurrian narratza gurdipean sartu zen, gurdipen arteko ardatza mutur batetik besteraino zeharkatuz. Betertzarekin zaintzen nituen bere mugimenduak, baina ez nintzen ausartu ezer esatera, harik eta gutxiago zerbait egitera.

Aita bailatik atera zen, etxeko giltzak eskuan eta orduan gure aldetik itzultzeko ezein ahaleginen aurrean etxea irmo itxita ikusi nuen. Gure etxebizitzaren kuskutsar hutsari so egin nion. Behin ere gauzatuko ez zen hiriaren eskeletoaren irudia jabetu zen nire buruaz berehala, jaio nintzen herrian ezagutzen nuen jendearekin batera irauteko irrikia-ekin batera. Aitak hatz batetik eskegita zeraman giltza altxatu zuen, gainontzeko gizonei zuzenduta.

— Norbaitek giltza hau lkatz Ordezkaritzan uzteko mese-dea egingo balit —esan zuen— biziki eskertuko nioke.

Juan Bautista ibiltzeko zeukan era baldarrarekin gerturatu zitzaion aitari, zapata lokarriak askatuta zeramatzala kon-turatu gabe artean.

— N-i-k h-a-r-t-u-k-o d-i-t-u-t —totelkatu zuen, aldi berean bi eskuak luzatuz giltza hartzeko, ume batek egingo zuela espero zitekeen moduan.

Gaizki ulertu didak, Juan Bautista —esan zion aitak arin asko besoa haztertuz; ez zen horren argitasun gutxiko per-sona batetaz fidatzen—. Ez dut norbaitek giltza hau bera-rentzat hartzerik nahi, giltza gorde diezaidan baizik.

Apaizak urrats bi eman zituen aurrera, giltza gordetzeko bere burua eskaini gabe ordea.

— Liburu Santuek sineskorrei muzin egiten dietenak gai-tzesten ditu —galdatau zuen gogorki—; zapal dezakezen lur eta babes zaitzaketen estalpean gera zaitezela dio-tsuet nik.

Aitak uhertuta erantzun zion:

— Jendeari ez dagozkion kontuetan muturra sartzea debe-katuko lukeen lege bat behar genuke. Nahiago dut neure izerditan ito lan baten bila hemen bizirik usteltzea baino.


Martin Txiki arretaz hurbildu zitzaion nire aitari. Sutan zituen begiok eta ezpain biak zimurtuta. Burua mugitu zuen Asun Garmendia seinalatzeko.

— Atsegin handiz gordeko dizut giltza arraio hori zurkaitz baten antza hartzen ari den emakume hori hartu eta itxu-razko gizon bat aurkituko dioten edonora eramatea onar-tzen baduzu. Denbora gehiegi darama beltzez jantzita.

Barre algarak entzun ziren, urrumak eta arnasestuak, Martin Txikik ahoa zabaltzen zuen bakoitzean bezala. Asunek buelta erdia eman zuen, aurpegia haserreaz izekita.

— Ezkontzeko asmorik izanez gero —oihu egin zuen hitzak estali gabe—, zaudete ziur benetako gizonak dau-den norabaitera joan nintzela aspaldi, ...

Apezak eten egin zuen, Asun gizonezkoen aurka Martin Txikirengan aurkitzen zituen hoben guztien erroldari birao



zerrenda luze baten artean ekitera zihoan une berean. Berriro ere tonu serioan galdetu zion aitari.

Eta nongo ogia jateko asmotan zoazte? Gaur egun ez da manarik erortzen zerutik.

Aitak irribarre lasaigarri bat ari zitzaion zuzentzen Asuni, Martin Txikik zioen ezergatik ez zuela asaldatu behar esanez bezala. Emakumearen besoak handitzen zituzten gihar korapiloak antzeman eta Martin Txiki berriro taldearen babesa bilatzen zuela ikusi zuen. Apezarengana itzuli zuen berriro burua, eta oraingoan umoretsuago zirudien.

— Lasai, apez jauna. Eztiz gainezka esnatzen da eguna. Goizo esnatu eta zurrupatu egingo ditugu.

— Txerrenek eraman ditzala berekin —esaten ari zitzaion amak Asuni beso bat sorbalda fermuetan ipiniz—, jentil nazkagarriak! Heuren gorotzetan lohiztatu daitezela!

Zetozen egunetan oroitu ahal izateko ez zituen begiak medailoitik alderatzen, ondo baino hobeto aztertuz esfera itxurako azalera betetzen zuten erliebeak. Nire amaren belarrietako gingilak etorri zitzaizkidan burura, zeintzuetatik behin ere ez nuen apaindurarik eskegita ikusi, edo bere

bularraldea, non behin ere ez zitzaion iskilinba ederrik eraxekei. Medailoia begira zegoen, liluraz irritsez bainoagoz.

— Ni arduratuko naiz giltzaz —esan zion Asunek aitari— hainbeste gizonen artean ahaztu egin da auzokoenganako jokabide zuzena! —esan zuen berehala ahots ozarroagoz.

Martin Txikik eskuak zabaldu zituen eta bere aurpegiera apaiz jaunarena trufaria bezain serioa zen. Esku batekin Asun seinalatu zuen, bestearekin araldeari zuzentzen zitzaion bitartean:

— Betidanik hunkitu izan naute alargunek —esan zuen. Ondoren begiekin Asunen garaiera neurtu zuen—. Bilera honetan munduko emakumerik luzeenarekin ezkontzeko prest legokeen mutil zahar bat behar genuke!

Asunen ahoa amorrutzko keinu batetan okertu zen.

— Ez diat zuen errukirik behar —zakar erantzun zien jendearenartetik entzuten hasi ziren barreei—. Martin Txikirengana aurreratu zen, bere beso luzeetako zaintxuriak odola borborka nola ponpatzen zuten antzeman zitekeen. Martin Txiki jende aldraren artean ezkutatzera jotzen zuela berriro ikusi zuenean, gurdira igo berri zen nire amaren ondoan geratu zen. Asun eta biak ia parez pare zeuden orain elkarrekiko—; nire gizona hil zenean nire ondoan eduki zintudan gau eta egun —jarraitu zuen Asunek—, nire bozkarioa izan zinen nire senarra atabutean sartu nuenean. Ez dut ahaztu. Eta behin ere ez naizela ahaztuko jakin dezazun zuri emateko oroigarri baten jabe izan nahi nuke.

— Nire bihotzean eramango zaitut —ziurtatu zion amak. Mutilak zertan zabiltsan jakin gura sartu zitzaidan orduan eta haiengana zuzendu nintzen. Gurditik tarte errespetagarri batetara zeuden, patrikak oraindik harriz gainezka.

— Harrotzen nau jakiteak.

Abiatzeko prest geunden.

— Tira seme, igo gora —oihukatu zidan aitak.

Gurdiaren gibelera egin nuen jauzi, zamaren punturik altuenera hain zuzen. Han goitik txoria banintz bezala ikus nintzakeen lautadan presaz eraikitako etxeak, zabor pilaren gainetik igotzen zen bafore zutabe mehea. Abiatu beharraren arrenkurak bularra betetzen zidan. Aitak mihia rekin klask egin eta behorrek pauso irmoz tiratu zuen gurditik, lardaiak atzean uzteko zori txarrarekin orde. Kateetako uhalak askatu egin ziren eta lardaien muturrek lurra ukitu zuten.

— Kontxo, kontxo! —harriduraz esan zuen aitak, jauzi batez jaitzita. Antzeko zerbait itxaroten zuela pentsatu nuen, gertatutakoa hain modu barez hartzen zuela ikusirik.

Etxola aurretik orro alaiak entzun genituen. Arestian gurdiaren azpitik narraztatzen ikusi nuen Garagarzatarren gazteenak sartu zigun amarrua: hark nasaitu zituen uhalak zalantzarik gabe. Irrino bare bat ageri zen aitaren aurpegiak berriro arrioak trinkatzen zituen bitartean. Ondo burututako txantxa batek ez zion minik ematen. Konpondu zituenean jauzi batez igo zen oster gurdiaren aurrekaldera.

Martin Txikik ezpainen inguruan elkartu eskuak eta haienartetik orru egin zion aitari:

— Alargun hau zeuekin eramateko borondaterik ez baduzu ergel batekin ezkondu beharko dugu. Juan Bautistarekin uztatu beharko dugu!

Urrunduz gindoazen astiro—astiro, gurpilak gurtarrastro zaharrek utzitako ildoetan lekutuz joan ziren ahala, zama batetik zabunkatzen zela. Apezaren azkenengo oharra belarrietan firrindan genuela ikusi nuen auzoko azken tei-latua zuhaitz artean nola desagertzen zen.

— Jokabide horrekin infernuko ohandzeetan izanen duzue betiko ostatua hurren!

Orduan jabetu nintzen nire amaren lepotik zintzilikatzen zen urrezko medailoiaz, bularra gauaren erdian ostatu bila dabilen arrotzak atea jotzen duen babes behar berdinarekin kolpatuz.

Atzera begiratu nuen berriro, harriak imajinatu nituen airea zeharkatzen gure leihoen aurka lehertu aurretik, kristal hotsa iritsi zitzaidan belarrietara laister batera. Pertsona maitatu baten hilobira behatzen den moduan beha nuen nire aurrean ezin ikus nezakeen herrian amaitzen zen bidea. Ezinegona ezin irentsiz, aitaren ondora hurbildu nintzen. Jende saldoa irudikatu nuen Asun Garmendiaz urruntzen, batzuk besteekin estropozu eginez. Asunen iza-era ezagututa berehala Martin Txikiri muturreko bat ematera higituko zela pentsatu nuen, eta tabernari harrotxkoa imajinatu nuen belauniko emakumearen aurrean, zutitze-ko beldurrez. Juan Bautista zen nola urruntzen ginen zekusan lekuko bakarra. Eskuaz eusten zien galtzei norbaitek —Garagarzatarren gazteena beharbada, pentsatu nuen— izto batez tiranteak moztu zizkiolako. Beso bat astintzen uen airean, oihuka:

— Aizue! Aizue!